



OTHOITZA EKLESIASTIKOEN FORMA

Bertsio informatiko honen egilea: Josu Lavin; Urkiola, 1-1C 48990 - Getxo (Bizkaia).

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LeizarragaForma.htm>

Joanes Leizarraga

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabetze Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

Honako idazlan hau *Jesus Krist gure Iaunaren Testamentu Berriari* itsatsirik argitaratu bazen ere (1571), autonomia propioa duen testua da eta bereizita eskaini zitekeen sinesmen protestanteko lurraldeetan. Euskaraz hedatutako aleen artean ere antzera jotatu bide zen, Vinsonek dioen bezala, Leipzig-eko ale txukunak ez baitakar eranskin hau. Bereizita aurkezten da hemen ere.

OTHOITZA EKLESIASTIKOEN FORMA

Sakramenduen administratzeko eta Ezkonzaren zelebratzeko, bai eta erien bisitatzeko manerarekin.

Astegunetan, Ministreak on irudi zaion bezala exhortatzen du populua othoitzza egitera: denboraren edo bere predikationean traktatzen duen materiaren araura.

Igande goizean komunzkei forma honetara nehorke usatzen du.

OTHOITZA.

Gure aiuta dela zerua eta lurra egin dituen Iaunaren izenean, Amen.



EXHORTATIONEA.

Haurrideak, presenta bedi gutarik batbedera Iaunaren maiestate handiaren eta goraren aitzinean bere falten eta bekatuen egiazko konfesionerekin, eta barne bihotzez iarreikiren kaie nik orain erranen ditudan hitzei.

KONFESIONEA.

Iainko Iaun, Aita eternal eta bothere guzitakoa, konfesatzen diagu eta egiazki ezagutzen hire Maiestate sainduaren aitzinean, ezen bekatore gaixoak eta miserableak garel, inikitatetan eta korrupcionetan konzebituak eta sorthuak, gaizki egitera emanak, ungi egiterakotz ez deusgaiak: eta gure bitio eta egitate gaixtoz hire manamendu sainduen iragaitetik eta haustetik gelditzen ere ezgarenak: eta halaz hire iujemendu iustoz eta egiazkoz diagu irabaizten eta merezitzen damnatione eta perditione gure gainera. Guziagatik ere Iauna, geurok baithan desplacer diagu zeren ofensatu augun, eta egiazko dolurekin gure buruak eta gure bitio guziak zitia-gu kondemnatzen, desiratzen dugularik, hire gratia gure miseriarri balia eta hel dakion.

Auk bada othoi, pietate guzaz Iainko Aita gratiaz eta miserikordiaz bethea, Iesus Krist eure Seme gure Iaunaren izenean. Eta gure bitio eta makula guziak iraungirik eta kendurik, hik eure Espiritu sainduaren dohainak eta gratiak hala egunetik egunera emenda eta augmenta ietzaguk, non barnetik gure bihotz guziaz gure hogena eta iniustitia, ezaguturik egiazki dolu eta desplacer baitukegu eta halako penitentia batetara erekar baikaitezke, non hark gu bekatu eta bitio orotara mortifikaturik, iustitiazko eta inozentiazko fruktu hiri plazent zaikanean gutan prokrea eta eragin baitezake Iesus Krist hire Seme gure Iaunaren izenean. Amen.

Haur egin denean, konpainia guziak edo dakitenek, kantatzen dute zenbeit Psalmu: gero berriz hatsen da Ministrea othoitz egiten eta Iainkoari bere Espiritu sainduaren gratiaren eskatzen, haren hitz saindua haren ohoretan, eta Elizaren edifikacionetan fidelki deklaratu eta rezebi dadinatzat bide den humilitaterekin eta obediencia-rekin. Othoitzeko forma Ministreak bere diskretionera egiten du:

Gero predikua akabatu denean, populua othoitz egitera exhortaturik, hunela Ministrea hatsen da.

Iainko Aita zelestial eta bothere guzitakoa, hik eure ontasun handiagatik prometatutik draukuk, ezen Iesus Krist eure Seme gure Iaunaren izenean eginen drauzkiagun othoitzetan eta rekestetan enzunen gaituala: eta haren beraren eta haren Apostoluen doktrinaz ere irakatsiak gaudetik, haren izenean bil gaitezen, promesekin ezen gure artean bera present izanen dela, bai eta gure ararteko hi baithara, lurraren gainean gogo eta konsentimendu batez hireganik galdegin ditzagun gauza guziak inpetra ditzagunkat.

Lehenik, hire manamendua diagu, hik gure gaineko eta gobernadore ezarri dituanagatik othoitz egin dezagun, gero hire populua bai eta persona ororen behar guziagatik. Bada, hire doktrina sainduaren eta promesen konfidanzatan, zeren hire begitharte aitzinean eta hire Seme gure Iaunaren izenean huna bilduak baikara, suplikatzen augu afektionatuki, gure Iainko eta Aita ona, gure Salbadore eta Ararteko bakoitzaren izenean, eure ontasun eta miserikordia handiagatik nahi drauzkiguan gure bekatuak barkatu, eta hala gure pensamenduak eta desirak euregana tiratu eta altxatu, non gure bihotz guziaz rekeri eta inboka baihezakegu eure plazer eta borondate onaren araura.

Othoitz egiten drauagu bada Aita zelestiala, hik eure iustitiaren gobernamentua eta kargua eman drauean prinze eta iaun hire zerbitzari guziagatik, eta espezialki leku hunetako kargua dutenagatik, nahi drauean, othoi, eure Espiritu egiazki prinzipala eta on bakoitza komunikatu eta bethiere augmentatu: halako maneraz non egiazki ezagutzen eta sinhesten dutela ezen Iesus Krist hire Seme gure Iauna dela regen Regea, eta iaun guzien gaineko Iauna, nola hik bothere guzia zeruan eta lurrean hari eman baitraukak, hala hek ere hik eman drauean karguan, haren zerbitzua eta haren Resumaren anplifikacionea bere ahal guziaz prokura dezaten: bere suietak (zein baitirade hire eskuez eginiko kreaturak, eta hire bazkako ardiak) hire plazer onaren araura goberna ditzaten, eta guziek hanbat hemen nola berzetan, bakerekin eta amoriorekin, etsaien peril eta beldur orotarik delibraturik, hi bethi zerbitza eta lauda ahal eza-gun gure mende guzian.

Halaber othoitz egiten drauagu Aita eta Salbadore egiazkoa, hik eure fidelen arimez eta eure Ebanjelio sainduaren dispensacioneaz kargu eman drauean pastor guziagatik, hik othoi nahi dituan hek eure Espiritu sain-



duaz gidatu eta gobernatu, hire gloriaren Ministre fidel eta leial eriden ditezenat: bethiere fin hunetara beha daudelarik eta bere ahal guziaz enseiatzen diradelarik, ardi errebelatu guziak Pastor prinzipalagana eta Ipizpikuetakoko Prinze Iesus Krist gure Iaunagana bil eta erekar ditezen: egunetik egunera hartan iustitia, eginbide eta saindutasun orotara probetxa eta abanza ditezenat. Eta berzalde nahi dituan, othoi, eure Eliza guziak enparatu eta begiratu otso harraparien ahotik, bai eta merzenario eta alokazer ororen menetik, ezen hek bere ohorearen edo probetxuaren ondoa diabilzak, eta ez nondik hire izen saindua glorifika eta hire trope-la salbamendutara erekar dezaketen.

Gehiago othoitz egiten drauagu Iainko Aita miserikordiosoa, jeneralki gizon guziakgatik, nola hi ezagutu nahi baitaiz Iesus Krist eure Semearen redenptioneaz mundu guziaren Salbadore, hala haren egiazko ezagutzetik lekora, eta erroretan eta ignorantiazko ilhunbean gathibu diradenak, eure Espiritu sainduaren illuminationez, eta eure Ebanjelio sainduaren predikationez nahi dituan, othoi, erekarri salbamendutako bidera, zein baita hi euror ezagut adin Iainko egiazko eta Iesus Krist hik igorri duana: eta hik eure gratiaz bisitatu, eta eure hitzaren ezagutzeaz ia illuminatu dituanak, benedikzione espiritualez abrusturik egunetik egunera onean abanza eta emenda ditezen: guziek elkarrekin gogo batez eta aho batez adora ezagunzat, eta hire Krist gure Iauna, Regea eta Lege-earlea ohora eta zerbitza dezagunzat.

Halaber o Iainko konsolacione guziaren emailea gomendatzen drauzkiagu hik krutzez eta tribulationez bisitatzen eta gaztigatzen dituan guziak: hik izurritz, edo gerlaz, edo gosetez aflijitzen dituan populuak: persona paubreziaz, edo presoindegiz, edo eritasunez, edo banimenduz, edo gorputzeko berze kalamitatez, edo espirituko afliktionez hunkiak edo tribulatuak, hik othoi halakoei ezagutzera eman nahi drauean eure afektione paternala, ezen haien hobegoagatik eta emendamendutan gaztigatzen dituala: bere bihotz guziaz hiregana konberti ditezenat: eta konbertiturik konsolacione osoa rezebi dezaten eta gaitz orotarik delibra eta idoki ditezenat.

Guzien gainetik gomendatzen drauzkiagu Antekristen tiraniaren azpian barreiu dabiltzan anaie gaixo guziak zein egiazko bizitzeko bazkatik, eta hire izen sainduaren publikoki inbokatzeko libertatetik pribatuak baitirade, bai eta presoner edo hire Ebanjelioaren etsaiez persekutatuak, nahi dituan othoi, o Aita gratiazkoa, eure Espirituaren berthuteaz guziak

fortifikatu, halako maneraz non sekulan falta eztezen, baina persisti eta iraun dezaten konstantki hire bokatione sainduan, nahi dituan aiutatu bere afliktionetan eta konsolatu, beharra dutela ezagutzen duan bezala, eta hek eure begiran eta protektionean harturik otsoen errabiatusunetik defendatu, eta eure Espiritu sainduaren dohain guzietan nahi dituan abanzatu, bai bizian bai hilean hi glorifika ezatenzat.

Halaber o Iainko eta Aita egiazkoa, enzun gaitzak othoi gu ere, baikara huna bilduak Iesus Krist hire Seme gure Iaunaren izenean haren hitzagatik (eta haren Zena sainduagatik) egiguk gratia egiazki eta hipokrisia gabe ezagut ahal dezagun zer damnationetan garen naturalki, eta zer condemnationea merezitzen eta biribilgatzen dugun egunetik egunera gure buruen gainera, ikusirik ezen gutan deus onik eztela, eta gure haragia eta odola ez tiradela kapable ez abastant hire Resumaren heretajez poseditzeko, hala bada sendi erazi iezaguk gure beharra, non gure afektione guziaz egiazko konfidanzarekin osoki renda baikaitzke Iesus Krist hire Seme maite gure Iaunagana, gure Salbadore eta redentore bakoitzagana, hark gutan habitatzen delarik gure Adam zaharra mortifikaturik, arranberri gaitzanzat bizitze hobego batetara, zeinez hire izena nola egiazki saindu baita eta digne, hala exalta eta glorifika baitaite leku guzietan Halaber duan hik gure gainean dominationea eta gobernamentua, eta bethiere gerotik gerora ikas dezagun hire maiestate sainduaren suiet eta obedient izaten: halako maneraz non guzietan egiazki regna baitezakek: eure populua eure hitzaren eszeptreaz eta eure Espirituaren berthuteaz gobernatzen dualarik eta eure etsaiak eure egiaren eta iustitiaren indarrak bethiere konfunditzen ditualarik.

Eta halaz hire gloriari kontrastatzen zaion puisanza eta goratasun guzia egunetik egunera aboli eta desegin dadin, hire Resumaren konplimentua eta perfektionea ethor daiten artean, noiz hi agerturen baitaiz eure Semearen personan. Bai eta gu goitiko kreatura guzietan egiazki eta perfektoki hire obedient garen, hi eure Aingeru zelestialek hire manamentuak egiazki konplutuz obeditzen auten bezala, eta manera berean othoi hire borondatea kontradiktionerik batre gabe konpli bedi, eta guziak ranjea eta enplega bitez hire zerbitzatzera eta obeditzera, zeinek bere borondate propria eta haragiaren guthizia guziak batbederak renunziatzen dituelarik. Eta gu eбилte garelá hire amorioan, eta beldurrean gure bizi guzian hire ontasunaz haz eta entreteni gaitezen othoi, gure ogiaren bakez iateko, behar eta mengoa ditugun gauza guziak emaiten drauzki-gualarik, dakusagunean ezen hik guzaz artha duala, hobeki gure Aitatan



ezagut ezagunzat, eta on guzien hire eskutik ukaitera beha gaudezenzat, esperanzarik ez konfidanzarik batre ezineren kreaturatan ezarten eztugularik, baina guzia hitan eta hire ontasunean ezarten dugularik. Eta zeren bizitze mortal hunetan bekatore gaixoak baikara eta hanbat inperfekzioez betheak, non ardura erorten eta egiazko bidetik aldaratzen eta erautzen baikara: othoitz egiten drauagu barkatu nahi drauzkiguan gure faltak, zeinakgatik hire iujemendura zordun baikara: eta barkamendu hunezaz nahi gaituan herio eternalera obligatuak garen obliganzatik delibratu eta idoki. Eztiezaguala bada othoi gutan den gaixtakeria inputa ez konta: nola guk ere egiten zaizkigun iniuriak ahanzitera hire manamenduz utziten baititugu, eta gure etsaiez mendeka lekuan, haien ona prokurutzen eta prokuratu gogo baitugu.

Finalki nahi gaituan, othoi, hemendik harat eure berthuteaz sustengatu, gure haragiaren infirmitatez trebuka ezgaitezenkat. Eta zeren gure buruz hanbat baikara indar xipitako eta erorkor, non den gutiena ere ezin baikinauteke fermu: eta berzalde halako etsaiez ardura inguratuak eta iaukiak baikara nola baita, deabrua, mundua, bekatua, eta gure haragi propria non guri gerla egitetik behin ere ezpaitirade baratzen: fortifika gaitzak bada othoi, eure Espiritu sainduaz, eta hala harma eure gratiez, non konstantki tentatione guziei bihur eta garait ahal gakidizten, eta batailla espirital hunetan persebera ahal dezagun, biktoria bethea ukanik, finean Iesus Krist hire Seme gure kapitain eta goarda denarekin hire resuman triunfa dezakegun arteranokotz. Amen.

Zena zelebratu behar den egunean segitzen dena ere erraiten da

Eta nola Iesus Iaunak ezpaitrauzkik gure bekatuen barkamendutan behin solament ofrendatu krutzean bere gorputza eta odola: baina are komunikatu nahi baitrauzkigu bizitze eternaleratko hazitzetan, egiguk othoi gratia haur, non bihotz xahuz eta zelo ardentez rezebi baitezakegu harenganik ontasun handi haur, eta egiazko fedez haz baikaitezke haren gorputzaz eta odolaz, bai eta beraraz osoki: nola hura egiazko Iainko eta egiazko gizon delarik, baita egiazki ogi saindu zelestiala, gure bibifikatze-ko, gehiagorik geuron bizi ezgarenzat, ez gure natutaren araura, zein baita guzia korrupitua eta biziosoa: baina Krist bera bizi den gutan, bizitze saindura, dohatsura eta sekulakotz irauten duenera eraman gaitzanzat: eta halatan Testamentu berrian eta alianzazko gratian partizipant egin gaitzen: hunezaz seguratuak gaudela, ezen hi eure ontasunagatik nahi aizela izan eternalki gure Aita favorable, guri gure bekatuak inputatzen eta kon-

tatzen eztrauzkigularik: eta gorputzera eta arimara behar dugun guziaz eure haur eta heredero bezala probeditzen gaitularik: guk bethiere hiri gloria eta remerziamendu renda diezaguanzat, eta hire izena erranez eta eginez magnifika dekagunkat. Egiguk bada Aita zelestiala, egungo egunean manera hunetan, hire Seme maitearen memoria saindu hunen zelebratzeko gratia, eta hartan exerzita gaitezen, eta publika dezagun haren herioaren benefizio eta irabazi handia: hazitze eta indar berri fedean eta ontasun guzian harturik, hanbat konfidanza handiagotz hi Aita dei ahal ezagun eta hitan bethi gloria ahal gaitezen. Amen.

Zena akabatu denean remerziamendu hunez, edo zenbeit berze hunelakotz usatzen ohi da.

Aita zelestiala, laudorio eta gratia eternalak rendatzen drauzkiagu, zeren gu bekatore gaixoak hunelako on handian partizipant egin baikaituk, zeren Iesus Krist eure Seme gure Iaunaren komunioera erekarri baikaituk, hura guregatik heriotara liuraturik eta bizitze eternalerako biandatan eta hazitzetan emanik. Orain ere, othoi, egin iezaguk gratia haur, eztuan permetitu nahi gauza hauk sekulan ahanz dakizkigun: baina aitzitik gure bihotzetan inprimituak ditugularik, abanza gaitezen ardura obra on guzitarra prest eta berthutetsu den fedean, eta hemendik haratko gure izate guzia iragan eta anplega dezagun hire gloriaren abanzamendutan eta gure hurkoaren edifikationetan, eta haur guzia Iesus Krist hire Seme gure Iaun Espiritu sainduaren unitatean, hirekin eternalki bizi denaren eta regnatzen duenaren izenean. Amen.

Populuaren partitzerakoan, Ministreak, Legean gure Iaunak ordenatu zuenaren araura, egiten duen benediktionea.

Iaunak benedika, eta konserba zaitzatala, Iaunak bere begithartea zuen gainera argi dezala, eta zuezaz pietate duela. Iaunak bere begithartea zuetara itzul dezala, eta prosperitate onetan mainteni zaitzatala. Amen.

Zeren Eskripturak irakasten baikaitu ezen izurriteak, gerlateak, eta berze goitiko adbersitateak diradela Iainkoaren, gure bekatuen punigarritako bisitatione: halakoak heldu diradela dakusagunean, ezagutu behar dugu ezen Iainkoa gure kontra aserre dela: eta orduan, egiazko fidel bagara, gure faltak ezagutu behar ditugu, egiazki desplazer eta dolu dugunzat: Iaunagana egiazko penitentiaz eta emendamenduz konbertitzen garelarik eta egiazko, humilitaterekin barkamendu inpetratzera othoitz egiten dugularik.



Kausa hunegatik, baldin zenbeit orduz badakusagu ezen Iaunak mehatxatzen gaituela, haren patientia tenta eztezagunzat, eta baldin konberti ezpagaitz gure gainera heldu dela dakusagun iujemenduari aitzine-ra ilki giazkionzat: on da asteen egun bat ordenaturik den: hartan espezialki gauza hauk remonstra ditezenzat, eta othoitzak eta suplikationeak, denborak emaiten duen bezala, egin ditezenzat. Eta hartakotzat othoitzeko forma segitzen den haur egin izan da.

Prediku hatsean egiten da, igandetan kostumatzen dela erran den konfesionea. Predikuaren finean, remonstraturik populuari, nola lurraren gainean egiten diraden bekatuakgatik Iainkoak aflijitzen dituen jendeak, eta nola mundua gaixtakeria orotara emana den: populua konbertitzera eta bizitzearen korrejitzera, bai eta halaber miserikordia inpetratzeko othoitz egitera exhortatu ondoan, hatsen da Ministrea manera hunetan.

IAINKO Aita bothere guzitakoa eta zelestiala, ezagutzen diagu geurok baithan, ezen hire aitzinera presentatzera, gure begien goiti zerura altxatzeko ere ezgarela digne: eta eztugula gure buruez hanbat presumitzeko non uste dugun hizaz gure orationeak enzunak izanen diradela, baldin gutan denera beha badezak. Ezen gure konszientiek akusatzen gaitie, eta gure bekatuek testimoniaje ekarten die gure kontra: eta bazeakiagu ezen hi iuje iustoa aizela, eta eztituala bekatoreak eta gaixtoak iustificatzen, baina hire manamenduak hausten eta iragaiten dituztenak punitzen dituala. Hunegatik, Iauna, gure izate guzia konsideratzen dugunean konfus gaituk gure bihotzetan, eta gure buruz gogo-galtzeaz eta desesperatzeaz berze gauzarik ezin gineaidikek, ia herioaren abismoetan bagina bezala. Guziagatik ere Iauna, eure miserikordia handiagatik manatu ukan gaituanaz geroz, hiregana retira gaitezen, eta hi inboka ezagun, bai are ifernu zolatik ere, eta zenbatenaz on beharrago, eta ezdeusago gure buruak ezagutzen baititugu, hanbatenaz zinezago dugun rekursa hire ontasun subiranora eta handira: eta prometatu ere draukuanaz geroz ezen gure othoitzak eta suplikationeak enzunen dituala, ez gure dignitatea eta merezimendua konsideratuz, baina Iesus Krist gure Iau, hik Adbokat eta Ararteko ordenatu draukuanaren izenera eta merezimendura behatuz: bada, konfidanza Iumano guzia renuntiatzen dugularik, eta hire ontasunean berean gure konfidanza guzia ezarten dugularik, esporzatzen eta benturatzen gaituk, Iauna, hire aitzinean presentatzera, eta miserikordia inpetratzeko hire izen sainduaren inbokatzera.

Lehenik Iauna, hik munduko berze jende guziei ere egiten drauztean gratia eta ontasun guzien gainetik, guri berzetarik abantail hanbat gratia handirik egin draukuk, non imposible baita konta ez adimenduz ardiets ere ahal ditzagun.

Espezialki eure ontasun handiagatik nahi ukan gaituk eure ebanjelio sainduaren ezagutzera erekarri, deabruaren suiektionen miserabletik, idolatria maradikatutik, eta superstitione banoetarik eta erhoetarik delibraturik eta idokirik, zeinetan hundatuak baikinaden, gidatu ukan gaituk eure egjaren argira. Eta halere ingrat eta ezagutze gabetako izanez, hire eskutik rezebitu ukan ditugun ontasun eta gratia handiak ahanzitera utzirik, bide zuzenetik aldaratu izan gaituk, eta hi utzirik, gure haragiaren guthizia gaixtoei iarreiki izan gaitzeaitzek: bide zen ohorea ez obedientia hire hitz sainduari ez tiraukagu ekarri ez rendatu: ez eta euror bide bezala ezaugu laudatu ez magnifikatu: eta hik ardura benignoki eta fidelki eure hitzaz abisatu bagaituk ere, hire admonitionez ez remonstranzez konturik eztiagu egin. Bekatu egin diagu bada, Iauna, eta anhitz maneraz ofensatu ukan augu: eta harren, konfusioenerik eta ahalkerik baizen ezteakusagu gure gainean: egiaz senditzen eta ezagutzen dugularik geurok baithan ezen erran ez pensa ahal dezakegun baino hogendunago garela hire iujemendu aitzinean, hanbat non baldin guk merezitu bezala hik traktatu nahi bagentuk, sekulako herio eta damnatione eternaletik itzurterik ezin baikenduke. Ezen baldin gure buruak exkusatu nahi bagentu, gure konszientiak akusatzen gaitik, eta gure inikitatea duk hire begien aitzinean gure kondemnarri. Eta segur Iauna, gure gainera igorri dituan gaztigamenduetarik ezagutzen diagu iustoki eta zinez gure kontra aserretu izan aizela. Ezen iuje iusto eta bidezko aizenaren gainean, eztituk merezitu gabe hik eureak aflijitzen. Bada hire zihorrez zehatu izanik, ezagutzen diagu gure buruen kontra tharritatu ukan augula. Eta orain ere badiakusagu hire eskua gure punitzera altxatua: eta eure mendekioaren eta punitioaren exekutatzeko usatzen ohi dituan harmak orain desplegatuak eta idokiak diaudek: eta bekatoren eta gaixtoen kontra egiten dituan mehatxuak prestatuak diaudek gure begien aitzinean.

Eta baldin ungiz oraino baino rigoroskiago eta gogorkiago punitu nahi bagintuk ere: eta plaga baten lekuan ehun rezebitzeko gintuen orduan ere: eta are berze orduz eure Israeleko populua falten korrejitzean usatu ukan duan malediktionen guziak gure gainera eror balitez ere, konfesatzen eta kontradiktionerik batre gabe aithortzen diagu zuzen onez eta mereziz gintukeela.



Guziagatik ere, Iauna, hi gure Aita aiz, eta gu lur eta lohi baizen ezgaituk: hi aiz gure Kreazalea, eta gu gaituk hire eskuen obrak: hi aiz gure Artzaina, eta gu hire arthaldea: hi aiz gure Redenptorea, eta gu hik redemitu duan populua: hi aiz gure Iainkoa, gu gaituk hire heretajea. Ezadila bada othoi aserre gure kontra, eure hiran gure korrejitzera. Ezaizela gure inikitateaz gehiagorik orhoit, hura puni dezanat: baina eure emeta-sunaren araura emeki gaztiga gaitzak. Gure bekatuen kausaz hire hira iraxeki izan duk: baina aizen orhoit, ezen hire izena gure gainean inbokatzan dela, eta hire merka eta segnalea ekarten dugula. Aitzitik entreteni ezak eure gratiaz gutan hasi ukan duan obra, mundu guziak ezagut dezanat ezen hi aizela gure Iainkoa eta Salbadorea. Hik badakik, Iauna, ezen ifer-nuetan daunzan hilek, eta hik desegin eta konfunditu ditukeanek ezautela laudaturen: baina arima tristek eta desolatuek, bihotz aurizkiek eta abati-tuek, bere hogenaren sendimenduz hersturatan diraden konszientiek, eta hire gratiaren gosea dutenek, ohore eta laudorio emanen draue. Eure Israeleko populua anhitzetan bere inikitatez hiratar probokatu ukan au: eta hik hura iujemendu iustoz aflijitu ukan duk: eta zenbat ere handi bai-tziraden haren faltak, eure zerbitzari Abrahamekin, Isaak-ekin, eta Iakob-ekin egin ukan auen allianzaren amorez, eure zihor eta malediktionen haien gainera prestaturik edutzanak, itzuli ukan dituk hetarik, hala non haien orationeak ezpaitrade egundano hizaz iraitzi ez arbuiatu izan. Guk badia-gu, hire gratiaz, allianza bat ungiz hobeagorik, eta hire aitzinean allega ahal dezakegunik, zeinetan reposa ahal baikaitezke: zein baita, hik euro-reek Jesus Krist gure Salbadorearen eskuan egin eta ezarri draukuan allianza, zein nahi ukan baituk haren odolaz eskriba ledin, eta haren herio-az eta pasioneaz zigila eta konfirma ledin. Halakotz, Iauna, gure buruez eta esperanza humano guziaz renuntiatzen dugula, dohain onezko allian-za hunetara gure bihotz eta afektione guziaz retiratzen gaituk, ezen allian-za hunez Jesus Krist hire Seme gure Iaunak, hiri guregatik bere gorputza sakrifiziotan ofrendaturik rekonziliatu ukan garauzkik Behezak bada, Iauna, Krist eurearen begithartera, eta ez guregana: haren interzesioneaz hire hira apazega eta amatiga dadinzat eta hire begitharteak argi beza gure gainera gure bozkariotan eta salbamendutan: eta hemendik harat rezebi gaitzak, othoi, eure gobernamentu saindura, eta gida gaitzak eure Espiri-tuaz, hark bizitze hobetara rejenera gaitzanzat: eta moien harraz,

Sanktifikat bedi hire izena. Ehor bedi hire resuma. Egin bedi hire borondatea zeruan bezala lurrean ere. Gure eguneko ogia iguk egun. Eta barka ietzaguk gure faltak guk ere falta egin draukutenci barkatzen draue-

gun bezala. Eta ezgaitzala sak erazi tentationetan: baina delibra gaitzak gaitzetik. Ezen hirea duk resuma, pusanza eta gloria sekula sekulakotz. Amen.

Eta gure ahoen irekitek, eta hiri gure nezesitatean rekestarik egiteko digne ezgarela ezagutzen diagu, guziagatik ere hire plazer ona izan denaz geroz, guri manatzera elkargatik othoitz dagigun, othoizten eta suplikatzen augu gure anaie eta membro gaixo, hik eure zihorrez eta gaz-tigamenduz bisitatzen dituan guziagatik, othoi nahi duan eure hira heta-rik harzaratu eta itzuli: eta orain bereziki N-aganik eta N-aganik. Aizen, othoi, orhoit Iauna, hek ere gu bezala hire haur diradela, eta baldin ofen-satu bahaute, ez-tuan halakotz hetarik harzaratu nahi eure ontasuna eta miseriordia, zein hire fidelak baithara perpetual izanen dela prometatu ukan baituk. Beha-ezak bada othoi, eure klementiazko begiez eure Eliza guzietara, eta orain izurritz edo gerlaz edo zenbeit berze afliktione motaz bisitatzen dituan populu guzietara: eta hire gaztigamenduz edo eritasu-nez, presoindegiz edo paubreziaz gaztigatzen duan persona :rotara, guziak konsolatzen ditualarik, beharra dutela hik hobeki ezagutzen dua-naren araura: eta gaztigamenduak probetxa eraziten drauztealarik bere korrektionetan eta emendamendutan, konfirmatzen ditualarik patientia onetan, moderatzen dualarik hetara eure rigora, eta finean, guziei gaitz orotarik delibraturik, hire ontasunean alegeratzeko eta hire izen saindua-ren laudatzeko materia konplutua eman nahi drauean. Eta prinzipalki nahi duan, othoi, behatu eure miseriordiazko begiaz hire egiaren alde trabai-llatzen diradenetara, hanbat jeneralki nola partikulariki, konstantia fermu batez harma ditzanzat, eta defendatzen ditualarik bethiere asisti akienzat: haien eta eure etsaien arteak eta fineziak desegiten ditualarik, haien furia eta errabiatasuna bridatua dadukalarik, bethi konfunditzen ditualarik, hire kontra eta hire Semearen membroen kontra iaukiten dituzten entpresa guzietan eta eztezala othoi, permeti Kristinotasuna xoil desola dadin, ez hire izenaren memoria lurretik ken eta gal dadin: eztezala permeti hek gal ditezen zeinen gainean nahi ukan baituk hire izen saindua inboka ledin, eta Turkak, Paganoak, Papistak, eta goitiko infidelak gloria ditezen, hi blasfematzen autela.

Halaber othoitz egiten drauagu Aita zelestiala, hik eure iustitiaren kargua eman ukan drauean prinze eta iaun hire zerbitzari guziagatik: eta espezialki leku hunetako Iaunagatik, nahi drauean, othoi, komunikatu eta egunetik egunera augmentatu eure. Espiritu on bakoitza eta egiazki prinzipala: halako maneraz non egiazko fedez ezagutzen dutela ezen Jesus



Krist hire Seme gure Iauna dela regen Regea eta iaun guzien gaineko Iauna: eta nola hik hari eman baitraukak bothere guzia bai zeruan bai lurrean, hala hek ere bere gehientasunean, haren zerbitzatzera eta haren resumaren abantzazera eta exaltatzera prokura dezaten, hire borondatearen araura gobernatzan dituztela bere suietak, baitirade hire eskuez eginiko kreaturak, eta hire alhaguneko ardiak: bai hemen bai leku guzietan baketan eta amorio onetan, sanktitate eta puritate orotan zerbitza ahal ezagun: eta gure etsaien menetik eta beldurretik lekora gure bizi guzian lauda ahal ezagun.

Halaber othoitz egiten drauagu Aita egiazkoa eta Salbadorea, hik eure fidelen artzain ordenatu dituan eta arimen kargua eta eure Ebanjelio sailduaren dispensationea eman drauean guziakgatik, nahi dituan, othoi, eure Espiritu sailduaz gidatu eta gobernatu, hire gloriaren ministre fidel eta leial eriden ditezenzat: bethiere bere ahal guziaz huni darreitazalarik, nondik ardi errebelatu eta banatu gaixo guziak elkargana daitezkeen eta Iesus Krist Iaunagana Pastor prinzipalagana eta Ipizpikuetako prinzeagana bil eta erekar ditezen, hartan gerotik gerora iustitia eta sanktitateguzitara aitzinaramendu har ahal dezaten. Eta berze alde nahi dituan, othoi, eure Eliza guziak delibratu eta begiratu otso harraparien eta merzenarioen ahotik, zein bere ohoren eta probetxuaren ondoan baitabilta, eta ez hire izen sailduaren exaltationearen eta hire arthaldearen salbamendua- ren ondoan.

Gehiago othoitz eta suplikamendu egiten drauagu, Iainko eta Aita miserikordiosoa, gizon guziakgatik, nola Iesus Kristez egin izan den redentioneaz leinu humano guziaren Salbadore ezagutu nahi baitaiz, hala oraino haren ezagutzetik lekora ilhunbean eta errezezo eta ignorantiazko gathibutasunean eta subiektionean diradenak, eure Espiritu sailduaren illuminationez eta eure Ebanjelioaren predikationez, nahi dituan, othoi, erekarri salbamendutako bide egiazkora: zein baita hunetan, Hi euror ezagut ezagun Iainko egiazko eta Iesus Krist hik igorri duana: othoitz egiten drauagu halaber, hik ia eure gratiaz bisitatu eta eure hitz sailduaren ezagutzeaz illuminatu dituanak ere, bethi hire ezagutzean entreteni eta abanza ditezen hire benedikzione espiritualetz abrusturik, guziek elkarrekin hi gogo batez eta aho batez adora ezagunzat, eta hire Krist gure Iaun, Rege eta Lejisatora bethi ohora eta zerbitza dezagunzat. Amen.

BAPTISMOAREN ADMINISTRATZEKO FORMA

Iakin behar da ezen haurrak batheiatzera ekarteko diradela, Igan- dean Katexismeko orduan, edo zenbeit berze egunez predikura: nola Baptismoa baita Elizara rezebitze solenel bat, hala kongregatione guzia- ren konpainian egin dadinzat.

Predikua akabatu denean presentatzen da haurra. Eta orduan Minis- treak hunela hatsen du.

GURE aiuta dela zerna eta lurra egin dituen Iaunaren izenean. Amen.

Presentatzen duzue haur hori batheia dadinzat?

Ihardestea.

Bai.

Ministrea.

Iesus Krist gure Iaunak irakasten drauku zein paubrezia eta miseria handian guziak sortzen garen, dioskunean ezen berriz sorthu behar gare- la. Ezen baldin gure naturak arranberritu behar badu Iainkoaren resuma- ra sartzerik ukaitekotz, asko seignale da, ezen hura xoil korrupitua eta maradikatua dela. Eta hunetan abisatzen eta irakasten gaitu, humilia gai- tezen, eta geurok baithan desplacer dugun. Eta manera hunetan prepara- tzen gaitu bere gratiaren desiratzera eta rekeritzera, harzaz gure lehen naturaren korrupitione eta malediktione guzia aboli eta edeki dadinzat. Ezen gratia hunek ezin duke gutan lekurik, non lehen gure berthute, zuhurtzia, eta iustitia guziaren konfidanza guziaz hustuak eta billuziak ezigaren: bai hanbatetarano non gutan den guzia kondemna baitezakegu.

Gero gure dohakabetasuna erakutsi draukun bezain sarri, konsola- tzen ere bagaitu bere miserikordiaz, prometatzen draukunean ezen reje- neraturen gaituela bere Espiritu sailduaz, rejeneratione hura haren resu- marako sartze bat bezala dugunzat. Eta rejeneratione hunek ditu bi parte: bata, gure buruez renuntia dezagun, eta ezgarreitzan gure razoin propria-



ri, ez plazerari, ez borondateari: baina subiuga eta gathiba ditzagun gure adimenduak eta bihotzak Iainkoaren zuhurtziara eta iustitiara, eta mortifika dezagun gutarik eta gure haragitik den guzia. Berzea da, Iainkoaren argiari garreitzan haren borondate ona obedi dezagunzat, bere hitzaz irakasten eta bere Espiritu sainduaz gidatzen gaituen bezala. Bi puntu haurtarik bataren eta berzearen konplimendua Iesus Krist gure Iaunean da: ezen haren herioak eta pasioneak du halako berthutea, non hartan partizipatzen dugularik herioari ohortze bezenbat baikaizkio, gure haragiaren guthiziak mortifika eta iraungi ditezenzat. Halaber, haren resurrekzionaren berthutez resusztatzen gara bizitze berri batetara, zein baita Iainkoaganik, haren Espirituak gobernatzen eta maneiatzen gaituen bezenbatean, gutan haren gogarako eta plazent diraten obrak egin ditzanzat. Guziagatik ere gure salbamenduko punturik prinzipalena eta lehena da, Iainkoak bere miseriardiagatik gure falta guziak barka dietzagun, hek inputatzen ez kontatzen eztrauzkigularik, baina hezazko memoria utziten eta iraungiten duclarik, hek haren iudizioan konta eztakizkunzat. Gratia hauk guziak egiten zaizkigu Baptismoaz bere Elizako membro egiten gaitueanean: ezen sakramendu hunetan gure bekatuen barkamendua testifikatzen drauku. Eta kausa hunegatik ordenatu ukan du urezko signoa, figura eta klaroki representa liezalgunzat, ezen nola element hunez gorputzeko satsutasunak eta makulak ikutzen eta garbitzen baitirade hala nahi dituela garbitu eta purifikatu gure arimak, gehiagorik hetan makularik ageri eztenzat. Gehiago, gure arranberitzea eta renobellamendua hartan presentatzen drauku, eta haur konsistitzen da, erran den bezala, gure haragiaren mortifikacionean, eta gutan eragiten eta prokreatzen duen bizitze espirtualean.

Bada gratia doblea rezebitzen dugu gure Iainkoaganik Baptismoan, baldin geurok gure ingrat izanez sakramendu hunen indarra eta berthutea ezeza ezpadezagu. Ezen hartan dugu testimoniaje segura eta egiazkoa, nola Iainkoa, Aita egiazko eta favorable izan nahi zaikun, gure bekatuak eta faltak inputatzen ez kontatzen eztrauzkigularik. Berze alde testimoniaje dugu hartan ezen Iainkoak esku eduki nahi draukula, eta bere Espiritu sainduaz asistitu nahi zaikula, deabruaren, bekatuaren eta gure haragiaren guthizien kontra biktoria dukegun bezala batailla ahal gaitezenzat, haren Resumaren libertatean bizitzeko, zein baita iustitiazko eta eginbidezko Resuma.

Bada bi gauza hauk gutan Iesus Kristen gratiaz konplitzen diradenaz, geroz gauza klaroa da Baptismoaren berthutea eta substantia, hartan

konprehenditzen dela ezen eztugu haren odola baizen berze ikuzgarririk, eta eztugu berze arranberitzerik haren herioan eta resurrekcionean baizen. Baina nola bere abrastasunak eta benedikzioneak bere hitz sainduaz komunikatzen baitrauzkigu, hala bere Sakramenduez partitzen eta emaiten drauzkigu hek.

Bada gure Iainko miseriardiosoak eta gratiazkoak, bere haurretan gure adoptatzea eta bere Elizako komunioera rezebitzea ez asko itzeukiz, largokiago eta frangokiago bere ontasuna gure gainera hedatu nahi ukan du: prometatzen draukunean ezen gure eta gure jeneracionearen Iainko izanen dela, bai milla jeneracionetarano. Halakotz fidelen haurrak Adamen leinu korrupititik izaganatik, haien aitekin egin zuen alianzaren berthutez bere haurren kontuan aboatzen eta rezebitzen ditu. Kausa hunegatik lehen hatsetik nahi ukan du Elizan haurrek rezebi lazaten Zirkonkzionea, zeinez orduan representatzen baitzuen, egun Baptismoan erakusten zaikun guzia. Eta nola hek zirkonzidi litezen manatzen baitzuen, hala bere haurretan ere rezebitzen zituen, eta halakotan zadutzen, eta haien Iainko deitzen zen, haien aiten ere bezala.

Orain bada Iesus Iauna lurrera iausti izan denaz geroz, ez Iainko bere Aitaren gratiaren hertzera ez gutitzera, baina salbamendutako alianzaren mundu orotara hedatzera, zein baitzen Iudeako populuan enserratua, ezta dudarik gure haurrak prometatu draukun bizitzeko eta salbamenduko herederok eztiraden, eta halakotz dio S. Paulek ezen Iainkoak sanktifikatzen dituela hek amen sabeleandanik, Paganoen eta infidelen haurretarik diszerni eta berez ditezenzat. Eta razoin hunegatik hari presentatzen zaizkion haurrak rezebitu ukan ditu Iesus Krist gure Iaunak, S. Matheuen hemeretzigarren kapituluan eskribatua den bezala, non erraiten baita hunela, Orduan presentatu izen zaizkio haurrak haien gainean eskuak ezar litzan eta othoitz legianzat: eta diszipuluek reprotxatzen zituzten hek. Eta Iesusek dioste, Utzitzazue haurrak eta enegana ethortetik eztitzazuela enpatxa: ezen hunelakoen da zeruetako resuma.

Zeruetako Resuma haien dela segurutzen duenaz geroz, eta haien gainean eskuak ezarten, eta hek Iainko bere Aitari gomendatzen drautzanaz geroz, asko klaroki deklaritzen drauku, ezen hek eztitugula haren Elizatik irazitko. Bada haren doktrina huni garreitzalarik, rezebituren dugu haur haur haren Elizara, Iainkoak bere fidelei prometatu drauzten onetan partizipant egin dadinzat. Eta lehenik gure orationeaz presentaturen draukagu, guziek bihotz humilez erraiten dugula.



Iainko Aita eternal eta bothere guzitakoa, eure miserikordia handiagatik prometatut nahi, ukan draukuanaz geroz, gure, eta gure haurren Iainko izanen aizela, othoitz egiten drauagu, nahi duan gratia haur konfirmatu, hik eure Elizara deithu dituan aita-ametarik enjendratu den haur hunen gainean. Eta nola hiri guzaz dedikatzen eta presentatzen baitzaik, hala nahi duan eure protektionen sainduan rezebitu, hunen Iainko eta Salbadore erakusten eta deklaraten aizela, barkatzen draukoala bekatu orijinala, zeinetan hogendun baita Adamen arraza guzia: eta berze alde eure Espirituaz sanktifikatzen duala, ezagutzetako adinera dathorrenean, hi euror bere Iainko eta Salbadore bakoitz ezagut eta adora ezanzat, bere bizi guzian glorifikatzen auelarik, bethi hireganik bere bekatuez barkamendu inpetra dezanzat. Eta gratia hauk obteni eta rezebi ahal ditzanzat, nahi duan, othoi, Iesus Jaunaren komunioera inkorporatu, haren gorpuzeko menbroetarik bat bezala, haren on guzietan partizipant egin dadinzat. Enzun gaitzak Aita miserikordiosoa, guk huni hire ordenanzaren araura komunikatzen draukagun Baptismoak, hire Ebanjelioan deklaraten zaikun bezalako fruktua eta berthutea erakuts dezanzat.

Gure Aita zeruetan aizena, Sanktifica bedi hire izena. Ethon bedi hire resuma. Egin bedi hire borondatea zeruan bezala lurrean ere. Gure eguneko ogia iguk egun. Eta barka ietzaguk gure bekatuak, nola guk ere ofensatu gaituztenei barkatzen baitrauegu. Eta ezgaitzala sar erazi tentationetan, baina delibra gaitzak gaixtotik. Ezen hirea duk resuma, puisanza eta gloria sekula sekulakotz, Amen.

Haur hori Kristinoen Elizako konpainiara rezebitu behar denaz geroz, zuek duzue prometatzen, ezen ezagutzetako adinetara dathorrenean, irakatsiren eta instruituren duzuela, Iainkoaren populuak ezagutzen eta rezebitzen duen doktrinan, guziek dadukagun fedeko konfesionean laburski eta sumarioki konprehenditzen den bezala: zein baita hunela.

Sinhesten dut Iainko Aita bothere-guzitako zeruaren eta lurraren Krezalea baithan. Eta Iesus Krist haren Seme bakoitz gure Jauna baithan: Zein konzebitu izan baita Espiritu sainduaganik: Sorthu Maria birjiganik: Pontio Pilatoren azpian pasionatu, kruzifikatu hil eta ohortze: Iautsi izan da ifernuetara: Hereneko egunean resusztatut izan da hiletarik: Igan izan da zeruetara: Iarria da Iainko Aita bothere-guzitakoaren eskuinan: Handik ethorteko da bizien eta hilen iudikatzerara. Sinhesten dut Espiritu saindua baithan: Sinhesten dut Eliza saindu katolikoa: Sainduen

komunioena: Bekatuen barkamendua: Haragiaren resurrektionea: Bizitzea eternala. Amen.

Prometatzen duzue bada pena eta diligentia ezarriren duzuela haur horren irakasten, erran den doktrina hunetan guzian: eta jeneralki Testamentu zaharreko eta berriko Eskriptura sainduan den doktrina guzian, hura enzun eta rezebi dezanzat Iainkoaren egiazko hitz zerutik igorri anzo. Gehiago, exhortaturen ere baduzue eta abisaturen, Iainkoak bere Legean eman draukun reglaren araura bizitzera: zein baita bi puntu hant: Onhets dezagun Iainkoa gure adimendu, gure bihotz eta ahal guziaz, eta gure hurkoa, gure buruak bezala. Halaber, Iainkoak bere Profetez eta Apostoluez egin drauzkigun admonitionen eta abisuen araura, bere guthiziei gibela emaiten drauelarik, eta hezaz renuntiatzen duelarik, dedika eta aplika dezan bere burua, Iesus Krist Jaunaren izenaren glorifikatzerara, eta bere hurkoaren edifikatzerara.

Promesa egin ondoan, izena haurrari emaiten zaio: eta gero Ministreak batheiatzen du dioela.

N. Nik aut batheiatzen Aitaren, eta Semearen, eta Espiritu sainduaren izenean.

Guzia erraiten da goraki guziek aditzen duten lengoajez, zeren han den populu guziak, behar baitu izan testimonio, han egiten diraden gauzez: hunetakotzat da nezesario aditzea, eta guziak gerotik gerora konfirmago eta edifikago ditezanzat, ezagutuz eta orhoituz, zerik den batbederak bere Baptismitik duen fruktua eta probetxua.

Badakigu nola anhitz berze zeremoniarik ere egiten ohi zen iragan denboretan, eta eztugu ukatzen hek haraitzinadaniko diradela. Baina zeren gizonen plazerera, edo zerbait konsideratione arinagatik eridenak baitirade: nolazbaita ere .zeren Iainkoaren hitza gabe ordenatuak eta ezarriak baitirade eta ikusirik ezen superstitione anhitz hetarik ilki izan dela, eztugu dudarik ez difikultaterik egin haien kenzera, populua Iesus Krist-gana xuxengi ioaitetik harzara ahal lezakeen inpedimendurik ezlizenzat Eta lehenik, gauza klaroa da, ezen Iainkoaz ordenatu ezpa manatu etzai-kun guzia, gure libertatean dela. Gehiago, gure edifikationetan edo konfirmationetan ezten gauzarik Elizan eztela rezebitzeko, eta halakorik rezebitu izan den guzia utziteko eta kenzeko dela dadukagu. Eta ezeinere konparatione gabe utzitekoago eta kenzekoago dirade idolatriatiko eta opi-



nione falsutako .instrument bezala diraden gauza guziak: eta halakorik batre sufritzeko ere ezta. Gauza segura da ezen kresma, tortxo, kapa eta berze halako ponpa eta maneretak batre, eztela Iainkoaz ordenaturik izan, baina guziak gizonen emendatu eta eratzeki izan diradela. Eta, daku-sagun bezala, azkenekotz hartara ethorri izan da gauza, non gehiagonehor hetan arrastatu izan baita, eta estima handitanago munduak eduki ukan baititu hek, ezen ez Jesus Kristen ordenanza bera. Eta haur uka ere ezin daitena da nola guk, Jesus Kristek ordenatu, haren Apostoluek irakatsi eta Eliza primitiboan usatu ukan duten batheiatzeko forma bera dadukagun: eta hunen gainean, berzez nehor ezin reprotxa ez akusa ahal gaitzake, Iainkoa bera baino zuhurrago izan nahi ezgarenaz baizen, ezen hark bazakian zer behar zen eta zenbatez asko zen.

ZENAREN ZELEBRATZEKO FORMA

Lehenik iakiteko da ezen Zena zelebreturen den aitzineko igandean populuari haur denuntiatzen eta deklaritzen zaiola: lehenik batbedera prepara dadin dignezki eta bide den reberentiarikin haren rezebitzera: gehiago, nehor ez tiztan haurrak presenta, baldin ungi instruituak eta irakatsiak eta Elizan bere fedez profesione eginak ezpadirade: finean, baldin zenbeit estranjer oraino ruderik edo ungi instruitu gaberik han baliz, halakoak presenta ditezen aitzinetik partikularki instrui ditezenzat. Zena egiten den egunean Ministreak predikaren finean harzaz mentione egiten du, edo hala behar dela badakusa, prediku guzia ere harzaz egiten du, populua irakats dezantat, zer Iaunak misterio hunez signifkatzen eta aditzera emaiten draukun, eta zer moldez batbederak hura rezebitu behar duen.

Gero othoitzak eta fedearen konfesionea egin diradenean, Ministreak populu guziaren izenean testifika dekanzat, ezen guziak Kristen doktrinan eta relijioan bizi eta hil nahi diradela, hunela erraiten du guziek danzutela, goraki.

Danzugun nola Jesus Kristek ordenatu ukan draukun bere Zena saildua, Korinthianoetarako lehen Epistolaren hamekagarren kapituluari S. Paulek erraiten duen bezala.

Rezebitu ukan dut, dio, Iaunaganik, eman ere drauzuedana, nola Jesus Iaunak, traditu izan zen gauean, hartu zuen ogia: eta gratiak rendaturik hautsi ukan zuen eta erran zezan, Har ezazue, ian ezazue: haur da ene gorputza, zein zuengatik hausten baita: haur egizue ene memoriotan. Halaber kopa ere har zezan, afaldu zenean, zioela, Kopa haur da Testamentu berria ene odolean, haur egizue noiz ere eginen baituzue ene memoriotan. Ezen noiz ere ianen baituzue ogi haur, eta kopa haur edanen, Iaunaren herioa denuntiatzen duzue. Halakotz, nor ere ianen baitu ogi haur, edo edanen Iaunaren kopa haur indignoki, hogendun date Iaunaren gorputzaren eta odolaren. Foroga beza bada batbederak bere burua, eta hunela ogi hartarik ian beza, eta kopa hartarik edan, ezen iaten eta edaten duenak indignoki, bere kondemnationea iaten eta edaten du diszernitzen ezteularik Iaunaren gorputza.

Enzun dugu, haurrideak, nola gure Iaunak Zena bere diszipuluekin egin ukan duen: eta harzaz erakusten drauku, ezen estranjerak, erran nahi da, haren fidelen konpainiako ez tiradenak, ez tiradela hartara rezebitzeko. Halakotz regla hunen araura, Jesus Krist gure Iaunaren izenean eta autoritatez, exkomikatzen ditut Idolatre, blasfemari, Iainkoaren menospreziazale, heretiko, eta Elizako unitatea hautsi nahiz, sektak apart egiten dituzten jende guziak, desperiuruak, aita-amen eta bere aitzinekoen eta gehien desobedient diradenak, seditiosoak, mutinak, ukalkariak, gizerhaileak, reboltariak, adulteroak, paillartak, ohoinak, abaritiosoak, harrapariak, hordiak, gormantak, bizitze eskandalosoak daramaten guziak: eta halakoei publikoki deklaritzen kaie, mahain saildu hunetara ez tazozen, Jesus Krist gure Iaunak bere domestikoei eta fidelei baizen emaiten eztrauzten bianda saildu hauk pollui eta satsu ez tizatzenzat.

Bada S. Paulen konseilluaren eta exhortationearen araura, batberak foroga eta examina beza bere konszientia, eta zorrotzki gogoa beza eia egiazko dolu bat duenez bere bekatuez, eta hezaz desplacer duenez, hemendik harat sailduki eta fidelki Iainkoak manu bezala bizitzeko desirakin eta borondaterekin. Eta gauza guziaren gainetik gogoa beza batbederak, eia bere konfidanza guzia Iainkoaren miserikordian arrastatua eta ezarria duenez, eta bere salbamendu guzia Jesus Krist baithan osoki bilhatzen duenez, eta eia etsaigoa eta gaitzerizte guziak utzirik, anaietasunezko amorioan eta karitatean bere hurkoekin bizitzeko gogo eta borondate ona duenez.



Baldin testimoniaje haur Iainkoaren aitzinean gure bihotzetan badugu eztagigula dudarik batre, baina segura gaitezen, ezen Iainkoak bere haurretan aboatzen eta rezebitzen gaituela, eta Iesus Krist Iaunak bere mahain saindura deitzen eta gomitatzen gaituela, eta bere diszipuluekin komunikatu ukan duen Sakramendu saindu hura bera presentatzen draukula.

Eta anhitz variabeltasun, frajilitate eta miseria gure buruetan senditzen eta ezagutzen badugu ere, hala nola, fedea perfekt ukan gabez, eta inkredulitatera eta difidentiatara suiet eta inklinatu izanez: edo, Iainkoaren zerbitzura behar bezala afektionatu izan gabez, eta gure haragiaren guthiziekin bethi iharduki eta bataillatu beharrez: guziagatik ere Iaunak bere Ebanjelioaren gure bihotzetan inprimitzeko eta engrabatzeko gratia egin ukan draukunaz geroz, inkredulitate eta difidentia guziari resistitzeko, eta gure haragiaren guthizien renuntiatzeko enseiu bat eta desir bat eman draukunaz geroz, Iainkoaganako eginbideari eta haren manamenduei garreitzenzat: segura gaitezen frangoki, ezen gutan diraden bitio eta imperfekzione guziek, eztutela enpatxaturen, rezebi ezgaitzan eta mahain espiritual hunetan parte ukaiteko digne egin ezgaitzan. Ezen ezgara huna ethorten geurok baithan perfekt eta iusto garela protestatzera eta deklaratzera: baina-aitzitik gure bizitzea eta izatea Iesus Krist baithan bilhatzen dugunean, gure ethorte berez herioan, eta damnationean garela konfesatzen eta erakusten dugu. Dakigun bada ezen Sakramendu saindu haur barnez eta espirituz eri diradenen medizina bat eta remedio bat dela: eta gutarik Iaunak galdegiten duen dignitate guzia dela, gure buruak egiazki ezagut ditzagun, eta zinez eta mingi gure bekatuez dolu eta urriki dugun, eta gure atsegin, bozkario eta kontentamendu guzia hura bera baithan dugun.

Lehenik bada sinhets ditzagun, Iesus Kristek berak Egia bakoitz, falta ezin daitenak, bere ahotik egin drauzkigun promesak, baitirade ezen bere gorputzean eta odolean egiazki partizipant egin nahi gaituela konplutuki hura posedi dezagunzat, hala non hura gutan bizi den eta gu hartan. Eta guk ogia eta mahatsarinoa baizen ez ikustenagatik, eztezagula duda, eztuela espiritualki gure arimetan konplitzen exteriorki eta kanpotik signo bisible hauzaz erakusten draukun guzia, baita, ezen hura dela ogi zelestiala bizitze eternalekotzat, gure arimen hatzeko eta bazkatzeko. Ezgarela bada ingrat eta ezagutze gabetako Iaunaren ontasun handia bait-hara, zeinek mahain saindu hunetan bere abrastasun eta thesaur guziak desplegatzen baititu, hek guri komunika eta distribui dietzagunzat. Ezen

berak bere buruaren guri emaitiaz, testifikatzen drauku, ezen hark duen guzia gure dela. Rezebi dezagun bada Sakramendu saindu haur bahi egiazko bat bezala, seguranaz nola haren herio pasionezkoaren indarra eta berthutea iustitiatakotz inputatzen eta kontatzen zaikun, hark iragan duen guzia geurok gure persona propietan sufritu eta iragan bagendu bezala. Ezgarela bada hain konditione eta sorte gaitzetako, non harzara gaitezen eta ihes dagigun, Iesus Kristek bere hitzaz hain emeki eta dulzeki gomitatzen gaituenaz geroz. Baina egiten draukun dohain prezioso hunen dignitate eta balioa konsideratzen eta pizatzen dugula, presenta gakitzan afekzione bero batekin, hunen rezebitzeko digne egin gaitzanzat.

Hunetarakotz altxa ditzagun goiti gure spirituak eta bihotzak, Iesus Krist bere Aitaren glorian den lekura, nondik ethorteko ere baita gure arimen redentionetan. Ezgaitzela bada, begiz ikusten eta eskuz hunkitzen ditugun lurreko element korruptible hautan arrasta, Iesus Krist ogian edo mahatsarinoa barna baliz bezala. Ezen halatan izanen dirade gure arimak haren substantia beraz haziak eta bibifikatuak, gauza terrestre hauzaz gorago, zerurano altxatuak diraten orduan, Iainkoa habitatzen den resumara hel eta sar ditezenzat. Kontenta gaitezen bada ogia eta mahatsarinoa signotan eta testimoniajetan emaiten zaizkigunean, han egia espiritualki bilhatzen dugularik, non eridenen dugula Iainkoaren hitzak prometatzen baitrauku. Iainkoak gratia dagigula. Amen.

Haur egin eta, Ministrek distribuitzen drauzate populuari ogia eta kopa, aitzinetik adbertiturik honestoki, reberentiarekin eta ordenanza onean bide bezala datozen. Bizkitartean zenbeit psalmu kantatzen da, edo Sakramenduari dogokan gauzarik zerbait Eskripturatik irakurtzen.

Finan gratiak eta eskerrak redatzen dirade lehen erran den bezala.

Badakigu zer eskandalizatu izateko okasionea, guk egin dugun kanbio hunetarik, anhitzek hartu ukan duten. Ezen, zeren Meza haraitzindanik halako estimatan izan baita non mundu gaizoak baitzadukan ezen Kristinotasuneko punturik prinzipalena hura zela anhitzek estranio eriden du, nola hura xoil dena den bezala utzi eta kendu ukan dugun.

Eta halakotz gure razoinak eztakizkitenek, eta behar bezala irakatsiak eztiradenez, uste dute ezen Sakramendua desegin ukan dugula. Baina baldin nehork konsidera badeza guk dadukaguna, hark du eridenen eta ezaguturen ezen Zena saindua bere egiazko eta ordenatu zeneko tenorera eta moldera itzuli ukan dugula. Eta haur hala dela iakin nahi duenak



konsidera beza, zer konformitate den Mezaren, eta Iesus Kristek ordenatu ukan duen Zenako formaren artean. Gauza klaroa da ezen hanbat diferentia dela nola egunaren eta gauaren artean. Eta oraingo hunetan materia hunen luzaki traktatzeko intentionerik ezpadugu ere, ignorantiaz eskandaliza ahal litezkenakgatik iragaitez bezala mentione egin nahi ukan dugu. Ezen ikusi ukan dugunean Iaunaren Sakramendua hanbat abusioenez eta korrupzioenez ezeztaturik eta korrumpiturik, gaitz haur remedia ledinatz, bortxa izan zaiku anhitz gauza gaizki iarriren ezpa, usaje gaixotara itzuliren kanbiatzera eta muthatzera. Eta hunetakotzat eztugu moinen hoberik ez moldezkoagorik eriden, Iesus Kristek berak ordenatu zuen moldera itzultzea baino, zeini fidelki eta leialki, ageri den bezala iarreikiten baikaizkio. Eta haur da S. Paulek erakusten draukun reformationea.

EZKONKAREN ZELEBRATZEKO FORMA

Iakin behar da ezen ezkonza bat zelebra daiten baino lehen, elkarren ondoan hirur igandez aitzinetik publikatzen dela Elizan, baldin zenbeit inpedimendu nehork balaki gauza aitzinaratuago gabe, erraitera ethor dadinzat: edo nehork interesik balu oposa dadinzat.

Gero espos biak prediku hatsean presentatzen dirade: eta Ministrea hatsen da forma hunetan.

Gure aiuta dela zerua eta lurra egin dituen Iaunaren izenean. Amen.

Iainko gure Aitak, zerua eta lurra eta hetan diraden gauza guziak kreatu zituenean, krea eta forma zezan gizona bere imajinara eta irudira, lurreko bestien, itsasoko arrainen eta aireko xorien gainean dominatione eta iaurgoa luenzat: eta gizona kreatu ukan zuen ondoan erran zezan, Ezta on gizona bera den, dagiogun aiuta bat bera irudirik. Eta ezar zezan Iaunak lo egiteko guthizia handi bat Adamen gainera, gero hura lo zetzala har zezan haren seihets hezurretarik bat eta krea zezan Eba: harraz aditzera emaiten zuela ezen senharra eta emaztea eztradela gorputz bat, haragi bat, eta odol bat baizen. Halakotz, gizonak ditu utziten aita eta ama, eta bere emazteari iunktatzen zaio, eta hari on eritzi behar drauka, Iesus Kristek bere Elizari on eritzi draukan bezala: erran nahi da, egiazko fidelei eta Kristinociei, zeinakgatik hil izan baita. Emazteak ere zerbitzatu eta obeditu behar du bere senharra saindutasun eta honestate orotan: ezen senharra-

ren suiektioneko eta manuko da, harekin bizi deno. Eta ezkonza saindu Iainkoaz ordenatu haur da halako berthutetako, non haren kausaz senharrrak ezpaitu bere gorputzaren botherea, baina emazteak: emazteak ere halaber eztu bere gorputzaren botherea, baina senharrrak

Bada Iainkoaz iunktatuak ezin separa daitezke, denboratakotz ezpada bataren eta berzearen konsentimenduz, baruretan eta orationetan enplega ditezenezat, begiratzen diradelarik Satanez tentatu izatetik inkontinentiaz. Eta halakotz behar dirate elkargana itzuli. Ezen painardizari ihes egiteagatik, batbederak behar du bere emaztea, eta emaztetarik batbederak bere senharra: halako maneraz non kontinent izateko dohaina eztuten guziak, Iainkoaren manamenduz ezkonzera obligatuak baitirade, Iainkoaren tenple saindua, erran nahi baita, gure batbederaren gorputzak, biola eta korrumpi eztitezenzat. Ezen gure gorputzak Iesus Kristen menbro diradenaz geroz, zein gauza indigne eta bidebagezkoa lizate, baldin paillarda baten menbro egin balitez? Halakotz, saindutasun guzitan nehork begiratzeko ditu hek. Ezen baldin nehork Iainkoaren tenplea biola badeza, Iainkoak deseginen du haina.

Kuek bada (spos bata eta berzea zein bere izenez deithurik) N. N. ezagutzen duzuelarik ezen Iainkoak ezkonzaren gainean hala ordenatu ukan duela, nahi zarete bizi Iaunak hanbat ohoratu ukan duen ezkonzako estatu saindu hunetan? baduzue zuek hemen Iainkoaren kongregatione sainduaren aitzinean zuen presentiaz erakusten duzuen bezalako propos bat, eta nahi duzue hala aproba eta lauda dadin?

Ibardesten dute, Bai.

Ministreak.

Hemen present zaretzen guziok testimonio hartzen zaituztet: eta othoitz egiten drauzuet orhoit zaretzen. Guziagatik ere baldin nehor bada hauen artean inpedimendurik batre dakianik, edo hautarik batre berzerekin ezkondua denez, erran dezan.

Nehor oposatzen ezpada Ministreak erraiten du hunela.

Nehor oposatzen denik, ez inpedimendurik batre eztenaz geroz, Iainko Iaunak berak eman drauzuen propos saindua konfirma dezala, eta zuen hatsea dela zerua eta lurra egin dituen Iaunaren izenean. Amen.

Ministreak gizonari minzo zaiola, erraiten du hunela.



Kuk N. hemen Iainkoaren eta haren kongregatione saindu hunen aitzinean konfesatzen duzu eta aithortzen, ezen zuk hartu duzula eta hartzen zure emaztetan eta esposetan N. hemen presentean dena, eta duzu prometatzen hala edukiren, onhetsiren, eta entretenituren duzula fidelki eta leialki, senhar egiazko eta fidel baten emazteaganatko eginbidea den bezala, sailduki horrekin bizi zarelarik, fede eta leialtate gauza guzietan begiratzan draukazularik, Iainkoaren hitzaren eta Ebanjelio sainduaren araura.

Ihardesten du, Bai.

Gero emazteari minzo zaiola, erraiten du. Ministreak.

Kuk N. hemen Iainkoaren eta haren kongregatione saindu hunen aitzinean konfesatzen duzu eta aithortzen, ezen zuk hartu duzula eta hartzen zure senhar lejitimotan N. presentean dena, eta prometatzen draukazu horren suiekctionean zarelarik hori onhetsiren, obedituren eta zerbitzaturen duzula, sailduki horrekin bizi zarelarik, fede eta leialtate gauza guzietan begiratzan draukazularik, emazte fidel eta leial batek bere senharri, Iainkoaren hitzaren eta Ebanjelio sainduaren araura egiteko draukan bezala.

Ihardesten du, Bai.

Ministreak.

Estatu saindu horretara deithu zaituzten Iainko Aita miserikordio-soak, Iesus Krist bere Seme Iaun bere presentiaz ezkonza sanktifikatu zuenaren, eta han bere Apostoluen aitzinean bere lehen mirakulua egin zuenaren amorekatik, dizuela bere Espriritu saindua, gogo eta konsentimendu batez hura zuen mende guzian zerbitza eta ohora ahal dezazuenzat. Amen.

Enzuzue Ebanjelioa, dakikuenzat eia nola nahi duen Iaunak ezkonza begira dadin, eta nola fermu eta parti ezin daiten bezalako den S. Mattheuen hemeretzigarren kapituluaren eskribatua dagoen bezala.

Eta Fariseuak hurbil zekizkion hari, tentatzen zutela, eta ziotsatela, Gizonari permetitzen zaio zeinere den gauzogatik bere emaztearen utzitera? Hark ihardesten duela, dioste, Ala eztuzue irakurri ezen gizona egin zuenak hatsetik, arra eta emea egin zituela? Eta erran zuela, Halakotz utziren ditu gizonak aita eta ama, eta iunktaturen zaio bere emazteari, eta biak

haragi bat izanen dirade. Bada Iainkoak iunktatu duena, gizonak eztezala separa.

Sinhets itzazue Iesus Iaunak berak erran dituen hitz saindu hauk, Ebanjelistak testifikatzen duen bezala: eta segur edukazue ezen Iainko Iaunak bere ordenanzazko ezkonza sainduaz bat egin zaituztela. Bada, zaretan bizi elkarrekin sailduki, Iainkoak manu bezala batak berzeari karitate, fede eta leialtate begiratzan draukazuela.

Eta hunetakotzat othoitz eginen draukagu guziek gogo batez gure Iainko Aita Iaunari.

Iainko Iaun bothere, ontasun, eta zuhurtzia guzitakoa, lehen hatsetik ikusirik ezen etzela on gizona bera lizen, kreatu ukan draukak bera bai irudi aiuta bat, bai eta ordenatu biak bat liraden, afektionatuki othoitz eta suplikatione egiten drauagu, ezkonzazko estatu saildura hauk deithu nahi ukan dituanaz geroz, eure gratiatik eta ontasunetik nahi drauean partitu, eta eure Espriritu saindua igorri, fede egiazkotan eta fermutan sailduki hire borondatearen araura bizi diradenzat, afekzione gaixto guziari garaitzen zaitzala, eta honestatez eta kastetatez berzen edifikationetan exenplu on erakusten dutela, eure benediktionea emaiten drauealarik, eure zerbitzari fidel Abrahami, Isaak-i, eta Iakob-i bezala: hire gogarako eta ohoretako leinurik prokrea dezaten, hi zerbitzatzan eta laudatzen autela, eta hartara hel ditezenen, bere haurrak irakasten eta hatzen dituztela hire laudoriotan eta ohoretan, hurkoaren probetxutan eta hire Ebanjelioaren abanzamendutan eta exaltationetan. Enzun gaitzak, othoi, hautan guziotan, Aita miserikordiaz bethea, Iesus Krist eure Seme maite gure Iaunaren izenean. Amen.

Iainko Iaunak gratia oroz konpli zaitzatela, eta ontasun eta eginbide orotan elkarrekin luzaki eta sailduki bizitzeko gratia dizuela. eta gero bere sekulako glorian Iesus Krist bere Seme gure Iaunaren izenean rezebi zaitzatela. Amen.

ERIEN BISITATZEAZ

Ministre fidel eta egiazko baten ofizioa da, ez solament pastor ordenatu izan deneko populua publikoki irakastea: baina bai eta egin ahal dezan lekurano partikularki ere batbederaren admonestatzea, exhorta-



tzea, reprehenditzea eta konsolatzeta. Eta baldin sekulan Kristinoak gure Iaunaren konsolatione espiritualen mengoarik badu, haren eskuaz aflik-tionez bisitatzen eta kosiratzen denean du, edo dela eritasunez edo berze gaitzez, eta prinzipalki hil behar denean: ezen orduan egundano baino bere konszientiak hertsenago duke, hanbat Iainkoaren iujemenduaz, zeinetan baitakusa bertan konparitu behar duela, nola deabruaren iaukimenduez, zein orduan behinzat bere ahal guziaz enseiatzen baita nehoren konfusione-tara egoizten. Halakotz, Ministre baten eginbidea da erien bisitatzea, eta Iaunaren hitz sailduaz konsolatzeta, aditzera emaiten drauelarik ezen hek iragaiten eta sufritzen duten guzia Iainkoaren eskutik eta probidentia onetik heldu dela, eta nola hark eztrauen bere fidelei deus igorten haien hobeagoagatik eta probetxuagatik baizen. Eta hunetakotzat harturen duke Eskripturako pasajetarik, okasioneak eta materiak emaiten dukeen bezala. Eta baldin badakusa ezen eria guziz gaizki dela eta periletan, orduan konsolatione handiagorik eta frangoagorik emaiteko drauko: eta haur, halakoa baithan ikusiren dukeen afektionearen araura: hala nola, baldin herioak izitzen dukeela eta haren beldur datela badakusa: biziki erakuts diezon, nola herioan ezten deus, Iesus Krist Iauna gida eta begirale duten fidelentzat izigarririk, nola hark herioaz bera sarthu den bizitzera gidaturen eta eramanen dituen: eta berze hunelako remonstranzaz edekiteko drauko Iainkoaren iujemenduaz patientak ahal lukeen beldur guzia. Eta baldin badakusa ezen eriak eztuela asko sendi bere bekatuen handitasuna, orduan zorrozki erakusteko drauko zerik den Iainkoaren iustitia handia, nola nehork haren aitzinean ezin iguriki dezakeen, haren miserikordiaz baizen, eta Iesus Krist bere salbamendutan eta remedio bakoitzetan besarkatuz eta enplegatuz baizen. Eta baldin berze aldera bere konszientian herstua badakusa, eta bere bekatuen kausaz izitua eta trublaturia Bada: behar da Iesus Krist erakuts diekon, eta demon klaroki aditzera, nola bere buruetan ez bere obretan fida eztiradenez, baina harengana fedez retiratzen diraden guziek hura baithan remedio guzia erideiten duten. Bada, Ministre on eta fidel batek konsideratzeko eta bilhatzeko du zein den eri baten, ezpa aflijitu baten konsolatzeko moienik hobena, eta bethiere guzia Iainko Iaunaren hitzetik. Eta are baldin Ministreak algoarik badu, on behar gaizo aflijitu diradenen konsolatzeko edo aiatatzeko, eztu deus gupida ukaiteko, berzei karitatezko eta eginbidezko exenplu erakusten drauelarik.